

Gure iritziz, demagoji-kutsu ta zati aundiak ditu lege-gai onek; izan ere, aurrez agindu zituzten 800.000 ogibide edo lanpostuak benetan eratzerik ez daukaten ezker, jendeen aserreak nolerebait, bederen ixil-erazi nai izatea besterik ez bai-da.

Bestalde, langabekoen kopurua ez da inola ere amaituko, langabetuei diru-laguntza oparoagoa emango dietela-ta: lan-ekaz or jarraituko du, diru-laguntzaz babestuta egongo ba'da ere.

Diru-laguntzak geitze ori, jakiña, beren lanaren bidez aberastasuna sortzen ari diranen bizkar joango da, langille guztien emaitzetatik lagunduko bai-diete. Eta alde ortatik begiratuta, garbi ageri da ondoren au: dirutza ori guztia «**esku illetan**» gelditzen da, ez bai-du aberastasun berririk sortuko, ezta geituko ere; baizik-eta gabezia edo beartsutasunari eustea ta iruan-eraztea besterik ez bai-du egingo.

Batzuek beren lanez sortutako aberastasuna, geiagoko emaitzik atera gabe agortzen baldin ba'dugu, ekonomia osoa bihurtuko da bereala aulago ta beartsuago. Bestetik, berriz, ondoreza ta borroka sortuko dira ortatik; eta badira taldeak ori nai dutenak, jendetzak kale-borrokara atera aal izateko; eta badira dagoaneko taldeak, lanik gabeko jendetza batera ta bestera darabilkitenak.

Geuretik ematekoan, jakiña, gure emaitzak alperrik galtzeko orde, aberastasun berrien iturri izatea nai genuke, inbertsioak eta diru-bideak eta antolaketak indartzeko, alegia, gero ogibide edo lanpostu berriak sortu aal izateko.

Lanaren inguruko ekintzetara eragin bearra dago diruari gure lurraldean, naiz Agintaritzaren aldetik, naiz lantoki-nagusien aldetik, naiz langilleen aldetik eta baita langabetuen aldetik ere. Ona emen nola diran gauzak: «**langabetuentzat mugagabeko diru-laguntza**» eskatzen duan langabetuen taldeak, ez du ekintzarik txikiena ere eratu ogibide edo lanpostuak sortzeko bidean. Bitartean, badira zenbait langille langabetu, Laneko S.A., naiz kooperatiba ta naiz lantokiren batzuk eratu dituztenak.

Ekintza aukeratu ere, ordea, inbertsoetan dirua jarriko dutenak bear dituzte, naiz Agintaritzaren aldetik eta naiz bestelakoen aldetik, leen esan dugunez, ibilli-erazi egin bear dugu dirua ta etekin-bidean jarri. Auxe da Agintaritzari egiten diogun irrintzia: langilleen aurrean erraztu ditzala dirua inbertsionan sartuko dutenen bideak.

Aurreko idazlan batean eta ACE-RIALES diralakoan eraberritzea dala-ta, eskari zorrotz au egiten genien Agintaritzari ta ekonomi-taldee: industriak era-berritzeko antolaketa

batera, industria indar-berritzeko bideak ere egin ditzatela. Eta, jakiña, antolaketa auen oiñarri ta ardatz, inbertsioa da.

Kontuz!, ordea. Industria indar-berritzeak ez du esan nai, edozertan eta edozein moduz egin bear dituzten inbertsioak. Euskalerriko ekonomian

dauzkagun okerrak eta des-orekak berdintzera jo bear luke industri-berritzeak, ageri danez, era ontan noski: ogibideak geitu, lurralde aurreratuen maillara jaso ta aurreratu Euskalerriko industri-lana, langintzako kastuak gutxitu ta beste aurreratuen teknika-maillan jarri gure lantokiak. Ori guztia egin bear, leengo uts eta oker beretan eror ez gaitenez ostera.

Era-berritze ta indartze ontan guztian, jakiña, aundia izango da langilleek jarriko duten egiñaala, ta oiñarrizkoa izango da emango duten bultzada. Ondoren eta emaitzetan ere erantzukizuneko mailla opa izatea, bearrezkoa da noski. Diru-arazoetaz gaiñera, izan ere, gizarte-maillako artu-emanak ere zuzenagoak izan bear dute ta gizakientzat egokiagoak. Nola, ordea? Industri-berritzeko ekintza ontan guztian langilleei ere dagozkien egitekoa ta erantzukizuna opa izanez.

TXILLARDEGIREN LIBURU BERRIA

Debate zabal baten eza omen da Euskalerrian dugun akatsik nabarmentariko; komunikazio eza alegia, taldeak euren baitan istea zilbor propioari begira. Gezurkeria naiz sektarismua baliatzen dira ilunkeri-giro ortaz, giro bera gero-ta geiago zapuztuz, problemen azterketa otza ukatuz azken batean. Au ez da, noski, bakarrrik politika-maillan gertatzen; kultura-mailan sarritan antzeman genezaioko politika ainbeste eragozpen duan sektarismu berberari.

Euskal kultura dala-ta «Elkar» argitaletxeak bi liburuska interesgarri eskeintzen dizkigu: bata Josu Landa poeta gaztearena, gerraosteko olerkigintzaz; bestea, gaiaz zabalago, Txillardegiren, Euskal kulturaren az-

Patxiko Paulo

ken urte auei buruz. liburu biak, arlo ezberdiñak ikutu arren, noizbeinka eremu berdintsuetara abiatzen zaizkigu, ezker-«abertzale» dalakoaren zenbait sektoreen ikuspegia adieraziz; nere ustez alor onetxek, ispillu politiko-intelektualarena ain zuzen, gordetzen omen du interesik biziena, goian azpimarratutako sektarismuaren azia bai-darama bere baitan. Gaur, Txillardegiz mintzatuko naiz batez ere.

Aski ezaguna da Txillardegiren lana euskaltzaleen artean; ta euskaltzale trebe izateaz gain, bere bizitza euskerari eskeini diolarik, idazle aundia omen dugu bera, saiakera ta eleberrigintza eremu zabalak irekiz gure izkuntzari. Eredu jatorra «**Saioak**» aldizkari-liburuak berrargitaratutako lan zar bat: gaia zaila ta larria izanik, «**Hizkuntza ta pentsakera**», konplejotasunak ta sakontasunak ez omen diete inoiz argitasun eta ulerkortasunari lekuri kentzen. Goi-maillakoa, ta guziz baiezkorra deritzait beraz Txillardegiren lana literatura naiz izkuntza-lantze alor ontan; Joan Mari Torrealdayren itzak, «**Txillardegiz idatz-maisu izan da, gidari, Orixe eta Txomin Agirreraren atzetik**», ez dira, nere ustez, geiegizkoak.

Bestelakoak iruditzen zaizkit bere azken liburuan, («Euskal Kulturaren zapalketa 1956-1981»), adierazten dituen iritzi politikoak, kultura gaiarekin lotutak bereziki.

Txillardegik foruzaletasuna gaitzetsi egiten du, foruak beti «eskuindar»en aldeko aldeko izan dirala esanez, ta eskuiñaren arazotzat arturik bere eskakizuna. Iritzi oietxen arinkeria ez omen da bakarkako jarrerera, beste idazle batzuk, bide bereetik gutxi gora-beera, orrela jokatzan bai-dute arazo berdiñaren aurrean. Ona eman adibide bat 15'garren orrialdetik: «Lurren "euskal jabegoaz" idatzi diren teoria chauvinistek, funtsik ez dute. Lur-jabego sistema berbera (edo oso antzekoa) aurkitzen baita munduan zehar».

batetan adierazi zuenarekin parekatu dezakegu: «Euskal-Herri foralaren idealizazio hura, esate baterako, aspaldidanik Euskal errebindikapen nazionalen oinarri antzean erabili ohi zena (oraindik ere entzuten dena noizean behin) historiaren klase ikuspide batekin nola josi?».

Ta itz guzi auez gero iritzi tristeak, galdera iardetsi-gabeak burura datozkit. Itz oiek zera erakusten digutela, intelektual delako oien azterketa-naiek, balore-epaiketa soilla gainditzen ez duela, euskal errealtatearen arlo zabalak eztabaida edota azterketarik gabe deseustatzen dituztela, judizio batzuk jakintzat joz.

Topiko zaarkitueta biurto beaurrean, zergatik ez dituzte gaur-egun kaleratutako gai oiei buruzko lan-teorikoak, euren esanen kontrakoak, zuzenki erantzuten, eztabaida aspalditik iltzat jo gabe? Zeazkiro «Revolución-Represión o Buru-jabetza» azterketa-liburuaz ari naiz, foruzaleta-

suna eraberritu ta ezker-«abertzale»aren elburuak españolkeri gordinena bezela salatzen duena.

Isiltasun ortan bai-datza Azurmendi ta Txillardegiren intelektual mixeria, ta orokorkiagu ezker-«abertzale» guziarena. Arazo onetaz Txillardegik auxe dio: «Badirudi beraz, euskal kulturaren geroa, ezker iraultzailearekin lotuta dagoela. Euskal eskuinak folkloretzat baitauka euskal kultura; eta euskal gizarte baten projekturik ez baitu». Nere ustez ezker-«abertzale»aren sasoia ez dela ainbestekoa; noizbaiten onek erantzunik eman al die aipatutako liburuen salakuntza zorrotzei? Salaketak oso gogorrek direnez, ezker-«abertzale»ak, alegia, Euskal gizarte baten asmoa maltzurki darabilla bestelako jomugak lortzeko. Puntu au argitu gabe, Txillardegiren esanek ez dute inongo baliorik.

Txillardegiren liburua ikuspegi politiko oker onetaz mamiturik dago: beste eredu bat azalduz, ikastolen arazoaren inguruan botatzen dituen esanak. Len Krutwig bezela, egilleak etengabe du salatzen jeltkideen jokera Euskerarekiko, inoiz oreka-irizpiderik ipiñi gabe. Ikastolen arazoa, bere ustez, batez ere ETA ta ezker-«abertzale»aren borrokak piztu omen zuen.

Bestalde, «Herri xee»aren diruz pagatuak ziren beste laguntzik gabe. Ikastolak, garaiko beste kultura mugimenduen antzera (poesi berria, abeslariak) ezker-«abertzale»aren eragin bizigarriaz osatu omen zitzaizkigun ta era orretan gaurdaino irau.

Txillardegik, esames auen bidez, antzaldatzen digu erabat egia. Ikasto-

lak, proportzio ikaragarri, jeltkideek bultzatuak izan bai-ziren; «Herri xee» ura, jeltkideak zirelako geinbat. Ikastola federakuntzen gizonetara, guraso batzarretara jo dezala bestela.

Ikuspegi berdiñaren ondorio, Euskal kulturaren geroa, Txillardegik bertalde bereizten dizkigu, alde batetik euskalki-zaleak ta bestetik «Euskara batua»ren aldekoak. Orrela erabat biurritzen du problemaren muiña, euskaldun geienak bai-ziren batasun baten kideak, ez ordea «Euskara batua» orren aldeko; au politiko jomuga oiek kultura-maillan aurrera eramateko erabilli izan zutelako, inposizioa naiz trapukeria zirela medio.

Txillardegiren manikeismo ta sektarismo delako oiek, len bezela, ez ditugu arlo ortan ere bakarkako joerak. Josu Landa'k, argialetxe bereko liburuan («gerraondoko poesiaren historia») umekeri zorrotzagoz azpimarratzen bai-ditu 57'garren orrialdean, euskaltzaleen borroketaz ere: «Auzi ezberdin horien beligerantzian bi sektore nagusi izan ziren: aurrerakoiak eta atzerakoiak». Orrelako xinpletasunek ez omen dute aztertzaile-aalegin gogorregirik eskatzen, ez eta intelektual-mailla berezirik ere.

Txillardegiren entseiuak, beraz, isilpean jartzen duanarengatik du batez ere interesik; aldi berean, egileak eta ezker-«abertzale» osoak benetazko debate bati dioten sekulako beldurra azalaraziz. Batzuk intelektual-doilorkeri utsez, azterketa sakon eta argi batek alegin aundiak, apaltasuna ta konpromezu ez-erosoak ekarri ditzakelako; besteak berriz, interes politikoz engaiñua irau-araztearren Biok, azkenik, egiari uko egiten ditela.

NOR IZANGO ETE DA GURE JOSUE?

Inork ez daki nondik norakoak garen, baña, gaurko eguneraño, bizirik gagoz, Eskerrak emon bear gure aitta Sabin maitiari. Sabin'ek erakutsi euskun, nor garen ta aurrerantzian, nola jokatu bear dogun askatasun-bide garbi baten. Gure aitta Sabin zoragarriari zordun gagoz ta inoiz bere ezin izango dogu goraiptu illezkortasun aundi ori. Gizon miragarri onek, erri osoa berpiztu eban —EUKADI DA EUZKOTARREN ABERRIA— iru itz sakon oneik esanez. Euskaldunentzako askatasun-itxarkundea izan zan,

euskal arerioarentzat samina ta, gizon kondaira-jakintsuentzako azterkuntza barri baten asiera.

Lau xetara zabaldu zan ezker maitagarriko EUZKADI DA EUZKOTARREN ABERRIA gizon jakintsu asko asi ziran, ea nortzuk eta nungoak garen azterkatutzen nortzuk diran gure senideak, abar ta abar. Ezagunak gara, ba, ludi guztian ta baita buru-auste asko emon dautse batez be gure arerioari.

¡Nortzuk gara ba gu!, ¿...? Guk dakiguna da, euskera dala gure izkuntza, ilzori edo

azken-arnasa baten egonarren, ondiñokan onarritsu daukagula gure izkuntza gaxua ta, aleginduko gurela berpiztutzen. Ez dautsogula lagako iltzen, ba, gaurarteraño bizirik badago, aleginduko garala osasuntzen. Euskal izkuntza galtzen badogu ez dago EUSKAL-ERRIRIK. Alegindu gaitezen ba euskera gailurtzen.

Baña, nortzuk gara gu?, ¿...? Egun ortan, amets itxartuak daukadaz nere kaskarren ta, barregarri izan edo ez, idazki ortan azaldu nairik nago. Gure onarria, euskera dala-ta,